

ABELIO

Haize Maiztegi

Irun, 16 urte

Azkarra zara oso, baina zure alferkeria are handiagoa denez, eskolan ez zoaz batere ondo. Lau bat asignatura (ez duzu gogoratu nahi) suspenditurik bukatu duzu eskolako azken kurtsoa; gehiegitxo ezta? Arrazoi osoz, zure gurasoak haserretu egin zaizkizu, eta eskarmentu galanta hartuko duzula koan uda osoan lan egitera behartu zaituzte.

Gauzak horrela, udako lehen egunak zure izebaren jatetxean igaro dituzu lanean, zigortuta. Baina zorionez, han pare bat egun besterik ez duzu igaro. Zerbitzari gisa zinen eta bi egun neketsu haietan, hamaika plater hautsi dituzu. Gurasoak are haserreago jarri dira, eta hautsitako plater bezainbeste lanetan saiatu zara, baina denetan porrot. Azkenean, eman ziezazuketen zigorrik handiena jarri dizute: amak lan egiten duen zahar egoitzara eraman. Gorroto duzun zure aitona harekin egoitea; ondotxo dakite gurasoek; kexaka ibiltzen zaizu eta, hori gutxi balitz, dena gaizki egiten duzula iruditzen zaio. Eta amonarekin, aldiz, ezinegon sortzen da zure barruan, gehiegi zaintzen zaitu eta.

Zure herria inguruetakoa handiena da. Egia esan behar baduzu, oso itsusia da, eraikin izugarriak ditu, zaharrak eta zikinak, ibilgailu ugari eta lorategi gutxi. Zahar etxea hirigunean dago, ez da oso garaia eta herriko etxerik zaharrena da, nahiz eta

barrukoa eraberriturik egon. Pasillo bukagabeak atez josita, saloi handiak telebista ikaragarriekin... eta hau dena pixa antzeko kiratsez bustirik dago. Gogaikarria da hura, gehienbat zaharrez beterik dagoelako, herioa gertu bizi da.

Lan horretako lehenengo egunak izan dira gogorrenak, udako egunik txarrenak. Zure bete beharreko guztia zaharrekin egotea da, haiekin hitz eginez eta alaitzen saiatuz... Baina, badakigu nolakoak diren atso eta agure guztiak, gehienbat horrelako kartzeletan giltzapetuta egoten direnak, mojak dirudite. Berria den norbait bisitara sartu orduko, umeak litxarrerietara bezala hurbiltzen zaizkio eta bere izenaz eta bere gurasoez galdezka hasten, axola balitzaie bezala, eta titi ume bat balitz bezala goxoki bat eskaintzen diote, oso ederra eta handia dela esan ondoren. Zuri zorionez ez dizute gozokirik eskaini, hala ere gutxi batzuk ez ezik, hauek erdi hilak denak gerturatu zitzaizkizun, Amak esan dizu ez duzula denekin batera egon beharrik, lehenengo egunetan tira, baina gero baten bat aukeratu eta hura paseatzera eramateko.

Baina egunak pasa ahala zahar hauek zutaz ahazten joan dira eta horreka zuk haiek benetan nolakoak diren jakin ahal izan duzu: denak igoalak, agurre zaharrak!

Gogaikarria da benetan!, denek oso irribarretsu agurtzen jarraitzen dute eta zuk aldiz begirada apal bat botatzen diezu aurpegira begiratu ezinean. Gajoek pena ematen dizute, bizitza bukatzen ari zaie, ez dute une zorionsuagorik igaroko geratzen

zaien bizitza zati motz honetan. Ia ezin dira mugitu, ohetik saloira eta saloitik ohera.

Zuk han igarotzen duzu egun osoa; beraz, haiek egiten dutena egiten duzu zuk ere: saloitik ohera eta ohetik... Erotzeko zorian zaude, txori bat beزالakoa zara eta ez zara kaxa ilun batetan egoteko jaiο. Horrelako lekuetan zaudenean pentsatzen ematen duzu eguna, imajinatzen, baina asko imajinatzea ere ez da oso ona. Handik irtetean egingo duzunaz buruari bueltaka hasten zara, askatasun egun hori egun zoriontsua bilakatzen duzu, izango duzun egunik zoriontsuena izango da. Baina egunak joan egunak etorri etsitzen hasten zara, egun gehiegi igaro behar duzulako denok merezi dugun askatasuna lortu arte. Agian zure gurasoei barkamena eskatu eta nota hobeagoak ekarriko dituzula zin eginez, bidezkoa ez den zigor gogor hau alxtuko dizute, baina oso buru gogorra zara, zure gurasoeekin batez ere.

Jadanik iritsia da agure bat aukeratzeko unea. Saloian sartu zara, han daude adindun guztiak. Bat aukeratu behar duzu, eta ez dakizu zein. Banan-banan begiratu dituzu, eta pentsatzen geratu zara, begiak itxi eta lehenengo aldiz zure bihotzari jarraituz, batengana hurbildu zara. Begiak ireki eta... hori ezustekoa! Zur eta lur gelditu naiz. Abelio da. Geriatriko osoan gutxien ezagutzen duzun agurea. Beno, hobeto esanda, ez duzu batera ezagutzen, ez duzu inoiz harekin hitz egin. Lotsa antzeko sentazioa izaten duzu ondoan duzunean, beste inorekin sentitu ez duzuna.

Abelio ez da bere ondoan zaudela ohartu eta ez dakizu zer esan konturatu dadin, zorionez, bat-batean begirada altxatu du. Zirrara bat sumatu duzu gorputz osoan. Begi zoragarriak ditu, handiak, berdeak, zorrotzak eta tristeak, eta zuri begira daude. Zuk irribarre egin diozu, eta hark berehala itzuli dizu. Horrela, denbora luzez, isilik gelditu zarete, irribarrez eta elkarri begira, maiteminduak dirudizue, baina ez duzue elkar ezagutzen, bata bestearen izena besterik ez dakizue eta.

Hura izan da tentsio handiko une hori hautsi duena eta erdi xuxurlatuz esan du:

– *Eramango al duzu agure zahar hau airea hartzera?*

Zuk horren fin eskaturik ezin izan diozu ezetzik eman, eta poliki-poliki kartzela hartatik irten zarete. Ia ezin da ibili, eta besotik helduta daramazu.

Abeliok dena begiratzen du, atzo jaiotakoa izango balitz bezala. Zu oso arto zoaz haren ondoan, irribarre paregabeaz. Konturatu zaretenerako herri kanpoan zaudete. Besoa askatu dizu eta txangoa bizkortu du, nonbaitera joan nahi duela ematen du. Seguraski hondartzara zindoaztela bururatu zaizu, baina ez, ezagutzen ez zenuen bide batek sartu zarete (ez dakit horrela deitu diezaiokegun, sasiz eta belar txarrez josita baitago).

Zu lurrera begira zoaz, Abeliok oinak jartzen dituen lekuan zeureak ipiniz, zaila baita hortik ibiltzea. Baina bat-batean, zelai berde batean geratu da, aurrera begira, arnasa sakon hartuz eta irribarre zabala ezpainenetan. Itsas labar baten gainean zaudete, parean itsasoa du, oinetan hondartza eta

atzean herria. Bertatik ikusirik dena da ederra, herria eta guzti.

Haritz bakarti handi baten itzalpean eseri da, arnasestuka dago agurea, zu ondoan eseri zatzaizkio, eta biok begiak itxi dituzue, lur jota baitzinenten.

– *Zer egin duzu gaizki?* -xuxurlatu dizu belarrira.

– *Gauza asko. Zergatik?*

– *Zergatik zaude hemen?*

– *Zuk ekarri nauzulako.*

Ez duzu ezer ulertzen, eroturik dagoela pentsatzen hasia zara.

– *Ez, zer egiten duzu ni bezalako agureak zaintzen egoteko lagunekin egon behar duzunean?*

– *A! Nire gurasoen zigorra... Nota kaxkarrak ekarri nituen.*

– *Zergatik?*

Zuk oso ondo dakizu zergatia. Denek alferra zarela uste dute, baina ez da horregatik, hori disimulatzeko trikimailu bat besterik ez da, eskolan ez duzu lagunik, baztertuta zaude. Honen arrazoia ez dakizu; seguruenik, hasiera batean lagunak oso gaizki tratatu zenituelako: gezurrak esaten zenizkien, haietaz gaizki hitz egiten zenien besteei... Eta orain, aldiz, zigorra jasotzen ari zara, denen aurrean barregarri utzi eta zokoratu zaituzte. Uste duzu ondo merezia duzula, baina hau kontatzeak lotsa izugarria ematen dizu, horregatik eskolan potro jorretan ibiltzen zara pailazokeriak egiten. Horrenbeste denbora pasatzen duzu mozorro horekin, ze azkenean burua galtzen duzu eta bene-

tan nor zaren ere ez duzu oso garbi. Denek arazorik ez duzula pentsa dezaten egiten duzu hau, baina zure bihotza zuloz beterik dago, eta egunero jasotzen duzu labankada bat zure ikaskideengandik.

– *Alferra naizelako* –esan diozu erabat lotsaturik.

Hura isilik geratu da, itsasoari gogor begira eta zuri ezin egona sortu zaizu, ezin dituzu zure lagunak burutik kendu, norbaiti kontatzeko beharra sentitu duzu, beste askotan ere gauza bera gertatu izan zaizu, baina ez zenuen inor ondoan, eta, beraz, gose hura asetzeko idazten hasten zinen, burura etortzen zitzaizuna, poesia bat, kontakizun bat... Baina hori ez zen nahikoa.

– *Ez, ez naiz alferra.* –hasi zatzaizkio– *Egia esango dizut... arazo handi bat dut eskolan. Ez dut lagunik* –xuxurlatu diozu–.

Berehala begirada zuzendu dizu eta apal eta poliki hitzegiten hasi da.

– *Nik ere antzeko arazo bat nuen, lagun mordoa nuen, baina bat bera ere ez nire modukoa.*

– *Ez dut ulertzen...*

– *Norberak bere bizitzaren bidea egina duelarik jaiotzen da, ez galtzeko gurasoak dituzu, haiek esaten dizute nondik joan, baina ni independenteegia nintzen eta gurasoek ez zidaten jaramonik egiten. Oso zaila da bide horretan galtzea, zuzen-zuzena baita, baina nik zoritxarrez, bide erdian zegoen harri koxkor batean egin nuen estropozu eta bide zidor batera bota ninduen; bidetxo hau aurrekoa baino ederragoa zen eta atzera bueltatu beharrean bizitzako bidetik jarraitzeko bide zoragarri hartatik*

jarraitu nuen. Hau gero eta gogorragoa zen, koskaz betea, aldapaz josta... Nire aurreko bide zuzena nahiago nuen, baina beranduegi zen bueltatzeko, ezin nuen atzera egin.

– Zein izan zen bide erdian zegoen harri koxkorra? – galdetu diozu jakiteko irrikaz–.

– Susana. Inoiz maitemindu ez nintzen bezala maitemindu nintzen harekin. Ederra zen, beti irribarretsu, eta ni zoriontsu egiten ninduen. Hain zoriontsu ze egun osoa haren ondoan igarotzen nuen, leku guztietara laguntzen nuen. Azkenean ezkonduz bukatu genuen eta Getxotik honaino etorri ginen bizitzera. Oso gazte ezkondu ginen, lehenengo egunetan ez ginen ea etxetik irteten, baina hila-beteak pasa ahala, nitaz aspertzen hasi zen eta etxetik alde egin zidan. Ni, lur jota gelditu nintzen, munduan bakarrik nengoen, ez nuen lagunik ez emazterik, ez gurasorik, ez ezer.

– Eta jadanik beranduegi zen etxera bueltatzeko, ez da?

– Bai, lotsa eman zidan nitaz barre egingo zutelakoan.

Ez duzue horretaz arratsalde osoan gehiago hitz egin. Isilik geratu zarete biok, ia pare bat ordu igaro dituzue horrela, begiak irekirik eta biok ametsetan...

– Hemen egotea nire etxeko teilatuan musika entzuten egotea baino askoz zoragarriagoa da –esan diozu–.

– Ni ere gaztea nintzela gure baserriko teilatura igotzen nintzen, lo egin ezin izaten nuen gauetan izarrak begiratzera igotzen nintzen eta amak zigortzen ninduen egunetan hodeiak begiratzera. Zoragarria da zerua, garbia, aspergaitza, handia, zabala, imajinagarria...

Horrenbeste hitz daude zerua deskriba dezaketenak... Zerua ederren ikus daitekeen lekuan gaudela uste dut. Zerua itsasoa amaitzen den lekuan bukatzen dela ematen du hemendik.

– Itsasoa ere zoragarria da. Gureak bezalako imajinazio handiak garatzeko eta asetzeko horrelako lekuak behar dira, bakartiak. Zabalak, lasaiak eta ederrak.

– Susanak utzi ninduenean, lanetik irten ondoren, etxera joan beharrean, txango bat egitera joaten nintzen eta horietako batean hona iritsi nintzen eta harrez gero egunero etortzen nintzen.

– Zergatik utzi zenion etortzeari –galdetu diozu zuk–.

– Zaharren egoitzan sartu nintzen, etxean bakarrik bizi behar nuen eta zaharregia nintzen etxeko lan guztiez arduratzeko.

Uda aurrera doa eta egunak joan, egunak etorri oso lagunak egin zarete, egun osoa pasatzen duzue elkarrekin, arima bikiak zarete eta zenbat eta egun gehiago elkarrekin igaro, lagun handiagoak zarete.

– Abelio, nire lagunik minena zara –xuxurlatu diozu belarrira zuen zuhaitz azpian zaudetela.

Orduan hark irribarretsu begiratu dizu. Aurpegiko zimur guztiak oso garbi ikusi zaizkio, eta bere begi zaharretatik bi malko lodi atera zaizkio. Eskua patrikan sartu eta liburu bat atera du.

– Opari bat da, hartu, zuretzat –esan dizu zimurren gainetik malkoak erortzen zaizkiola.

– Zergatik?

– Barkatu, baina joan beharra daukat.

– Nora?

– Jainkoak daki.

Ez duzu ezer ulertzen. Askotan hitz egin dizu modu honetan.

–A! Zure herrira bueltatuko zara? –Burratu zaizun lehenengo gauza esan duzu.

– Ez. Bihar goizean ez nauzu ikusiko, ez da zutaz aspertu naizelako eta zuregandik alde egin nahi dudalako...

– Susanak bezala...

– Ez. Ni zaharra naiz, nekez iritsi naiz hona.

Negarrez hasi zara, berehala zutitu eta errieta egin diozu.

– Ez, ez esan horrelako gauzarik, lagun onak gara eta ez gaitu inork bananduko. Inork ez gaitu bananduko, bion arimek bat egiten baitute, baina gure gorputzak bananduko dira. Zurea, gaztea, lurrean geratuko da bizitzaz gozatzen eta nirea, zaharra, lurpean.

– Oraindik ez zaizu ordua iritzi!

Ez duzu inor, bakarrik geratuko zara.

– Ezer egin baino lehen egingo al didazu mesede bat? Irakur ezazu liburu hau hasieratik bukeraraino. Poliki. Pentsatuz irakurriz, irakurriz ikas.

Agurrak gorroto dituzu. Gehieniz bat denbora luzerako direnean.

– *Orain mesedez, utz nazazu bakarrik. Joan zaituz!* –esan dizu erdi negarrez–.

– *Ez, ni zurekin joan nahi dut* –esan diozu garrasika–.

– *Ez. Joan zaituz etxera, berandu da. Eta, mesedez, irakur ezazu liburua.*

Korapilo askaezina egin zaizu eztarrian, ezin duzu ia arnasarik hartu. Zenbat maite duzuna ohartzen hasia zara.

– Ez ezazu niregatik negarrik egin. Bazenekien noizbait hil egingo nintzela. Lasai, ez dut beldurrik. Joan, joan!

Esandakoari jaramonik egin baino lehen, kope-tan muxu maitagarria eman diozu eta zure indar guztiaz besarkatu duzu. Hark, eskuaz burua laztan-du eta gero liburu eman dizu.

Oso goibel joan zara. Herrira sartu orduko euria hasi du eta ez duzu euritakorik, baina berdin zaizu, busti bustita zaude, bai kanpotik eta bai barrutik ere. Etxera iritsi zara, ezin dituzu Abelioren begi berde handiak burutik kendu. Zure gelan sartu zara. Zoritxarrez, ezin zara teiltura igo, euria egi-ten baitu. Ohe gainean etzanda jarri eta sabaian duzun leihotik begira gelditu zara. Ez da gaua, baina hodei ilun eta lodi batzuek estaltzen dute zerua. Txikitan horrenbeste gustatzen zitzaizun ttantta hotsa entzuten da kristalean kolpeka.

Bapatean Abeliok emandako liburuaz gogoratu eta izenburuari jaramonik egin gabe irakurtzen hasi zara eta protagonistarekin identifikaturik senti-titu zara, ezin diozu irakurtzeari utzi, oso liburu berezia da zuretzat. Lagun on bat galdu berri zuen gazte baten istorioa kontatzen du liburuak. Protagonistak lagunak oparitutako zilarrezko eraz-tun bat zuen honen oroigarri bakartzat eta elka-rrekin igarotako momentuak gogoratuz lortzen zuen aurrera ateratzea. Abeliok esan bezala, hasie-ratik bukaeraraino irakurri duzu, pentsatuz iraku-rriz, irakurriz ikasiz.

Leihotik begiratu duzu, gaua da eta zerua garbi dago.

Hurrengo goizean esnatu bezain laster, itsas labarrera joan zara, badakizu ez dela inor egongo baina ez duzu Abelio ahaztu nahi. Zuhaitz azpian eseri zara eta atera berri den eguzkiari begira gelditu zatzaizkio. Pozik zaude, oso ondo sentitzen zara, agure zaharra bere zeruan dagoela baitakizu. Inguruan dituzun ezkurak hartu eta hondartzara botatzen hasi zara. Oharkabea, poltsikoko zilarrizko erloju bat hartu duzu ezkurraren ordean. Ireki eta Abelioren inzialak zeuden markatuta. Abeliorengatik azken malkoa isuri duzu. Ez ohizko malkoa, gozoa.